



Gaitasun
digitaletan
prestakuntza

5

Arazoak konpontzea







Gaitasun
digitaletan
prestakuntza



Arazoak
Konpontzea

C2 maila





AURKIBIDEA

5.1. ARAZO TEKNIKOAK KONPONTZEA

- *Cloud azpiegiturak: Microsoft Azure, Amazon Web Services eta Google Cloud Platform*

5.2. BEHAR ETA ERANTZUN TEKNOLOGIKOAK IDENTIFIKATZEA

- *Proiektu bat sortzen Kickstarterren*


5.3. TEKNOLOGIA DIGITALAREN SORMENEZKO ERABILERA

- *MoSCoW metodoa*
- *Inbound marketina eta edukien marketina*

5.4. GAITASUN DIGITALETAN HUTSUNEAK IDENTIFIKATZEA

- *Adimen Artifizialaren aztarna energetikoa*
- *Europako Batzordearen Adimen Artifizialari buruzko Legea*






DigitAll

Arazoak
konpontzea

5.1

ARAZO TEKNIKOAK KONPONTZEA





Arazoak
kopontzea

C2 maila 5.1 Arazo teknikoak
kopontzea

Cloud azpiegiturak: Microsoft Azure, Amazon Web Services eta Google Cloud Platform





Cloud azpiegiturak: Microsoft Azure, Amazon Web Services eta Google Cloud Platform

Hodeiko konputazioa

Aurrerapen teknologikoei esker, Internet hainbat ekintzatarako erabiltzen da gaur egun, informazioa bilatzeaz aparte. Aplikazio berri horietako bat **hodeiko konputazioa** da, **cloud computing** ere esaten zaiona.

“Hodeiko konputazio” deritzon **metodoaren medioz baliabide informatiko partekatuak ematen dira**, hala nola aplikazioak, biltegiatzea, sareak edo plataformak. Zerbitzu horien guztien **ezaugarri komuna da erabilitako eta biltegiatutako informazioa Interneteko zerbitzari baten bidez exekutatzen dela**.

Hodeiko konputazioaren funtsezko elementuetako bat **cloud azpiegiturak edo hodeiko azpiegiturak** dira. Azpiegitura horiek **hodeia osatzen duten hardware- eta software-baliabideak** dira eta, ondorioz, erabiltzaileak baliabideez hornitzea ahalbidetzen dute.

Horri dagokionez, hodeian zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa asko daude; **enpresa horietako hiru nabarmentzen dira: Microsoft, Amazon eta Google**.

Horregatik, dokumentu honetan halako enpresen hodeiko azpiegiturak aurkezten dira, baita horien abantailak eta desberdintasunak ere.

OHARRA

Hodeiko konputazioko zerbitzuen hazkundea

Hodeiko konputazioak baliabide ugari eskaintzen dituenez, Interneten nabigatu duen edozein pertsonak zuzenean edo zeharka erabili du metodo horrek eskaintzen duen zerbitzuren bat.



KALKULU-POTENTZIA ZERBITZU GISA KONTRATATUZ

Potentzia informatikoa zer den azaltzen da (kalkulu-gaitasuna), eta nola handitu dezakegun cloud azpiegiturak kontratatuz, hala nola Microsoft Azure, Amazon Web Services eta Google Cloud Platform.

e.digitall.org.es/A5C51C2V04





Hodeiko azpiegitura nagusiak

Hodeiko azpiegiturretan sakondu aurretik, garrantzitsua da zer osagai nagusi dituzten adieraztea:

1 | Zerbitzariak: hainbat datu-zentrotan instalatzen diren potentzia handiko ordenagailuak dira. Normalean, hodeiko zerbitzuen hornitzaileek elkarri lotutako zerbitzarien taldeak usatzen dituzte, hodeiko konputaziorako zerbitzu gehiago eskaintzeko.

2 | Softwarea: hodeiko azpiegitura baten baliabide birtualizatuak eskuratzeko erabiltzen da.

3 | Sareak: funtsezko elementua dira hodeiko azpiegiturretan, hainbat zerbitzari eta datu-zentrotan lan-karga desberdinak konektatzeko aukera ematen baitute.

4 | Biltegiatzea: datugune bat da, arkitektura fisiko batean egonik lan-kargak hodeian gordetzeko aukera ematen duena. Hodeiko biltegiatzea, orobat, eskalagarria da eta, horrenbestez, bere tamaina, eskualde-erabilgarritasuna eta mota handitu ditzake.

Horrez gain, garrantzitsua da jakitea zertan diren desberdinak hiru hodei mota horien artean: publikoa, pribatua eta hibridoa.

HODEI MOTAK

Hodei publikoa	Hodei pribatua	Hodei hibridoa
Hodeiko baliabideak hornitzaile baten jabetzakoak dira, eta hornitzaile horrek administratu eta eskaintzen ditu Internet bidez.	Hodeiko baliabide informatikoak enpresa edo erakunde batek erabiltzen ditu eskusiboki .	Hodei publikoaren eta pribatuaren baliabideak konbinatzen ditu , datuak eta aplikazioak bi inguruneen artean mugitzeko aukera ematez gain.

Arestian adierazi den bezala, Microsoft, Amazon eta Google dira hodeiko zerbitzuen artean nabarmentzen diren enpresak.

Amazonek, **Amazon Web Services** plataformaren bidez, merkatua menderatzen du % 30etik gorako partaidetzarekin, eta Microsoft bigarren postuan dago **Microsoft Azure** plataformarekin. Azkenik, Google egunean jartzen ari da hodeiko zerbitzuen eskaintzan; izan ere, % 7ko partaidetza du, bere *cloud* azpiegitura berriki abiarazi bada ere: **Google Cloud Platform**.

OHARRA

Hodeiko konputazioko zerbitzuen hazkundea

Hodeiko konputazioak baliabide ugari eskaintzen dituzenez, Interneten nabigatu duen edozein pertsonak zuzenean edo zeharka erabili du metodo horrek eskaintzen duen zerbitzuren bat.



i Informazio gehiago

Hodeiko azpiegituraren elementuei, hodei motei edo azpiegitura bakoitzaren estatistikei buruzko informazio gehiago izateko, esteka hauek kontsultatu daitezke:

- **Hodei publikoaren, hodei pribatuaren eta hodei hibridoaren arteko aldeak | Microsoft Azure** (e.digitall.org.es/distinas-nube) Azure, d.g.
- **Zertan datza hodeiko azpiegitura? Hodeiko konputazioaren azpiegiturari buruzko azalpena: AWS** (e.digitall.org.es/infraestructura). AWS, g.f.
- **Hodeiko konputazioari buruzko 19 estatistika eta ekintza liluragarriak 2024rako** (e.digitall.org.es/computacion). Findstack, 2023.

Microsoft Azure

Microsoft Azure **hodeiko plataforma hibridoa** da, etengabe hedatzen ari dena, eta 2008an abiarazi zena. Aplikazioak sortzeko aukera ematen die erabiltzaileei, **datuak hodeian gordetzen diren bitartean Microsoften datu-zentroen bidez**.

Hodeiko azpiegitura horrek eskaintzen dituen **zerbitzuak** kategoria hauetan sailka daitezke:

- Hodeiko aplikazioak
- Datuen kudeaketa
- Lana sarean
- Nortasun- eta sarbide-kontrola
- Mezularitza eta integrazioa

Zerbitzu horien artean, Microsoft Azurek **zenbait produktu beti doan eskaintzen ditu** plataforma honetako bezeroentzat; **beste zerbitzu batzuk**, berriz, **lehenengo hamabi hilabeteetan baino ez dira doakoak bezero berrientzat**. Hala ere, Microsoft Azureren ezaugarri nagusia da: bezeroak erabiltzen duena ordaintzen du.

Horrez gain, Microsoft Azurek baditu beste abantaila batzuk, hodeiko azpiegitura nagusien artean kokatzen dutenak (1. irudia).





1. irudia. "Microsoft Azureren abantailak". Geuk egina, hauek oinarri hartuta: Clarcat (d.g.); Microsoft Azure (d.g.); eta Wankhede, P., Talati, M., eta Chinchamalature, R. (2020)

Batetik, Microsoft Azure **hodei egokia da enpresa guztientzat**, edozein sektoretan aritzen direla ere. Izan ere, **hainbat produktu eta zerbitzu konbina daitezke**, eta horrek **onura handiagoa ekartzen dio enpresari**. Gainera, plataforma horrek **Windowseko aplikazioen** lengoia bera erabiltzen du, eta, beraz, ekipoek modu eraginkorragoan lan egin dezakete, ezagutzen duten teknologia erabiliz.

Bestalde, azpiegitura horren **prezio-eskema** beste hodei batzuen bano **ekonomikoagoa** da, optimizazio eraginkorraren eskema baitu. Horrez gain, **zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko hainbat aukera** eskaintzen ditu:

- 1 | Zuzenean erostea** Microsoftetik Azure.
- 2 | Azure erabiltzea** Microsoften partner baten bidez, Microsoften hodeiko soluzioen hornitzailea (CSP) programan sartuta.
- 3 | Azureren abantaila hibridoa**, Azuren makina birtualak prezio merkeagoan exekutatzeko aukera ematen duena, beste zerbitzu batzuen lizentziak izanez gero, adibidez Windows Server Datacenter, Software Assuranceren edo Windows Serveren harpidetzek estaliak.
- 4 | Azure Reserved Virtual Machine Instances**, zeinak aukera ematen duen makina birtualak urtebetez edo hiru urtez erreserbatzeko eta, horrela, prezioa nabarmen murrizteko.



Hasieran adierazi den bezala, hodeiko azpiegitura hibridoa da Azure. Hori ere plataforma honen abantailetakoa bat da; izan ere, hodei publiko bat eta hodei pribatu bat dituenek, aukera ematen du aplikazioak bi hodeien artean partekatzeke, bai eta **malgutasun eta erosotasun handiagoa** ere, **esperientzia pertsonalizatzeko** bezeroaren beharren arabera. Ildo horretan, Azureren **cloud anitzeko giroa** ere funtsezkoa da, **beste plataforma batzuetako soluzioak administratzeko** aukera ematen duten tresnak baititu, hala nola Amazon Web Services edo Google Cloud Platform.

Azkenik, beste abantaila bat **segurtasun adimenduna** da. Microsoft Azurek zibersegurtasuneko inteligentzia bakarra du, mehatxuak modu proaktiboan prebenitzen dituenak, eta, gainera, segurtasun-kopiak eta datu-transferentziak zifratzeko aukera ematen du, informazioaren babesa bermatzeko.

Amazon Web Services

Amazon Web Services (AWS) **hodeiko azpiegitura publikoa** da, 2006tik dago martxan, eta zerbitzu ugari eskaintzen dizkie enpresei:

- Konputazioa
- Datu-basea
- Biltegiatzea
- Edukiontzia
- Web-aplikazioak eta mugikorak
- Zerbitzaririk gabeko teknologia
- *Machine learning* edo ikaste automatikoa

Zerbitzu horiek enpresei hainbat baliabide ematen dizkiete hazkunde azkarragoa, kostuen murrizketa eta negozioa zabaltzeko aukera errazteko. Enpresei zerbitzu horiek eskaintzeko funtsezko elementu bat **Amazon Elastic Compute Cloud** (Amazon EC2) da, enpresa kontratatzaileak hardwarean egindako inbertsioa ezabatzea ahalbidetzen duena.

Microsoft Azurek bezala, AWSk zenbait **doako zerbitzu** eskaintzen ditu, zehazki, eskaintzen dituen 200etik gorako zerbitzuen erdia. Hala ere, **doako hiru eskaintza-motaren bidez** egiten du: **epe laburreko doako probak, bezero berriek dohainik erabiltzeko hamabi hilabeteko probak edo betirako doako zerbitzuak**.





Doako geruza hori abantaila nagusietako bat da, baina ordainketa-plana ere haien artean dagoela esan daiteke, erabileraren arabera ordainketa delako. Hau da, AWSn **bezeroek erabiltzen dutenagatik soilik ordaintzen dute**, eta horrek aukera ematen du enpresaren premia aldakorretara egokitzeko eta aldaketa horiei erantzuteko gaitasuna hobetzeko. Gainera, bezeroek deskontuak lor ditzakete eta nabarmen aurreztu, plataforma horren zerbitzuen erabilera areagotzean.

Aurrekoaz gain, azpiegitura horrek baditu beste abantaila batzuk ere (2. irudia).



2. irudia. "Amazon Web Servicesen abantailak". Geuk egina, AWS (d.g.) eta Clarcat (d.g.) oinarri hartuta.

Alde batetik, AWSk aukera ematen du **behar diren zerbitzuak hautatzeko** bezeroaren beharren arabera, eta, beraz, **malgutasuna eta erabiltzeko erraztasuna** ematen ditu, enpresak berrikuntzan zentratu ahal izan dezan, eta ez azpiegituran.

Bestalde, AWSk eskaintzen duen **eskalagarritasunak eta elastikotasunak** beste azpiegitura batzuen bidez (Auto Scaling, Elastic Load Balancing edo Amazon EC2) enpresei **behar dituzten zerbitzuak zabaltzeko edo murrizteko** aukera ematen die.

Azkenik, hodeiko azpiegitura honen beste abantaila bat **segurtasuna** da; are gehiago, enpresen azpiegiturak modu seguruan eta iraunkorrean administratzeko **ziurtagiriak eta egiaztapenak** ditu. Horretarako, **ikuspegi integrala** aplikatzen du azpiegitura babesteko, **neurri fisiko operatiboak eta softwarekoak** barne.



Google Cloud Platform

Google Cloud Platform **hodeiko plataforma publikoa** da, Googlek 2011n abiarazi zuena, hodeiko konputazioko zerbitzuak eskaintzeko. Zerbitzu horiek kategoría hauetan sailka daitezke:


- Kalkulua.
- Biltegiatzea eta datu-basea.
- Lana sarean.
- *Big Data*:
- Machine learning edo ikaste automatikoa.
- Kudeaketa-tresnak.
- Garapen-tresnak.
- Identitatea eta segurtasuna.

Azpiegitura horren ezaugarri nagusietako bat da **konpainiak berak erabiltzen dituen zerbitzu berberak** eta segurtasun-teknologia bera jartzen dituela bezeroen eskura.

Aurreko plataformetan bezala, Google Cloud Platformek **Always Free produktuak** ditu abantaila nagusi gisa. Hau da, 20 produktu baino gehiago ditu, bezeroei doan eskaintzen dizkienak.

Gainera, zerbitzu horiek erabiltzen hasteko, azpiegiturak **90 eguneko doako proba** eskaintzen du, bai eta ordainketa-sistema bat ere, non **bezeroak erabiltzen duenagatik soilik ordaintzen duen**, eta **epe luzerako lan-planetarako deskontuak** badituen.

Doako produktuetatik eta ordainketa lehiakorreko planetik harago, Google Cloud Platformek beste abantaila batzuk ditu (3. irudia).



3. irudia. "Google Cloud Platformen abantailak". Geuk egina, Clarcac (d.g.) eta Google Cloud (d.g.) oinarri hartuta.



Alde batetik, Google Cloud Platform ere **berrikuntzagatik** nabarmentzen da, **merkatuko azken berrikuntzekin zerbitzu modernoak** eskaintzen baititu. Alderdi horri esker, bezeroek eraldaketa digitalaren buruan egon daitezke zenbait sektoretan, hala nola Big datan edo ikaste automatikoan.

Bestalde, **segurtasuna** da Google Cloud Platformen funtsezko beste alderdi bat. Azpiegitura horretan, segurtasunak **muturretik muturrerako kodetze** baten bidez funtzionatzen du. Kodetze hori nahiko konplexua da, eta bezeroen datuak mantentzen ditu salbu. Gainera, **bere sare pribatuak erabiltzen ditu**, eta, beraz, **zibererasoak beste kasu batzuetan baino zailagoak dira**.

Azkenik, nabarmentzekoa da azpiegitura horrek **datuak azkar berrezartzen dituela**. Google Cloud Platformek **segundo batean baino gutxiagoan** egiten du berrezartze hori, eta hori oso denbora laburra da beste hornitzaile batzuekin alderatuta. Hornitzaile horiek hainbat ordu iraun dezakete, eta, gainera, plataforma honek baino tarifa handiagoa izan dezakete.

i Informazio gehiago

Esteka hauek kontsulta daitezke azpiegitura horietako bakoitzaren ezaugarriei eta xehetasunei buruz gehiago jakiteko:

- **Sortu zure Azureko doako kontua gaur bertan | Microsoft Azure** (e.digitall.org.es/cuenta-azure). Azure, d.g.
- **Microsoft Azure | Microsoft bolumenaren araberako lizentzien programa** (e.digitall.org.es/azure). Microsoft (d.g.).
- **Hodeiko zerbitzuen prezioa | AWS** (e.digitall.org.es/aws). AWS, g.f.
- **Doako probaren eta doako mailaren zerbitzuak eta produktuak | Google Cloud** (e.digitall.org.es/google-cloud). Google Cloud, d.g.
- **Konparazioa: AWS versus Microsoft Azure versus Google Cloud Platform** (e.digitall.org.es/web-services). Clarcat, d.g.
- **COMPARATIVE STUDY OF CLOUD PLATFORMS - MICROSOFT AZURE, GOOGLE CLOUD PLATFORM AND AMAZON EC2** (e.digitall.org.es/comparative). Wankhede, P.; Talati, M.; eta Chinchamalatlpure, R., 2020.



Erabilera mota egokienak plataforma bakoitzerako

Amaitzeko, eta sailkapen generikoa kontuan izanik, erabilera mota egokienak erakusten dira aurrez aztertutako plataforma bakoitzerako.

ERABILERA MOTA EGOKIENAK PLATAFORMA BAKOITZERAKO

Erabilera mota	Microsoft Azure	Amazon Web Services	Google Cloud Platform
Datu-bolumen handiak	✓	✓	✓
Marketin digitala	✓	✓	✓
Merkataritza elektronikoa	✓	✓	✓
Sortak	✗	✓	✓
Gobernuak	✓	✓	✗
Gauzen Internet	✓	✓	✓
Hodei pribatuak	✓	✓	✓
Reseller hosting	✓	✓	✓

Dokumentu honetan ikusi dugun bezala, hodeiko azpiegitura nagusiek berezko xehetasun jakin batzuk dituzte. Alabaina, ia-ia helburu berberetarako erabiltzen dira, baita zerbitzu eta funtzionaltasun berberetarako ere. Horregatik, ezinbestekoa izango da bezero bakoitzak aztertzea zer plataforma den egokiena bere premia espezifikoaren arabera.



i Informazio gehiago

Esteka hau kontsultatu daiteke hodeiko azpiegituren konparaziorako sarbidea izateko, erabilera mota egokienari dagokionez.

Konparazioa: AWS versus Microsoft Azure versus Google Cloud Platform (e.digitall.org.es/web-services). Clarcat, d.g.



i Informazio gehiago

Amazon Web Services (d.g.). AWSen prezioak. https://aws.amazon.com/es/pricing/?nc2=h_gl_pr_ln&aws-products-pricing.sort-by=item.additionalFields.productNameLowercase&aws-products-pricing.sort-order=asc&awsf.Free%20Tier%20Type=*all&awsf.tech-category=*all

Amazon Web Services (d.g.). Zer da hodeiko azpiegitura? <https://aws.amazon.com/es/what-is/cloud-infrastructure/>

Clarcat (d.g.). Konparazioa: Amazon Web Services (AWS) versus Microsoft Azure versus Google Cloud Platform. <https://www.clarcat.com/comparativa-aws-vs-microsoft-azure-vs-google-cloud-platform/>

Findstack (2023ko apirilaren 18a). Hodeiko konputazioari buruzko estatistikak behin betiko zerranda 2024an. <https://findstack.es/resources/cloud-computing-statistics>

Google Cloud (d.g.). Konpondu enpresa-arazo errealek Google Cloudekin. https://cloud.google.com/free/?_gl=1*1qkuh7a*_up*MQ..&gclid=3de30c58271a1ad4b69a69bed13dc728&gclid=3p.ds


Hernández, N. L. eta Florez, A. S. (2014). Hodeiko konputazioa. Revista Mundo FESC, 8, 46-51. <https://www.fesc.edu.co/Revistas/OJS/index.php/mundofesc/article/view/48/90>

Microsoft Azure (d.g.). Sortu soluzioak hodeian Azureko doako kontu batekin. https://azure.microsoft.com/es-es/free/search/?ef_id=_k_05e873f261d7166b80b91613c0e5e285_k_&OCID=AIDcmm68ejnsa0_SEM__k_05e873f261d7166b80b91613c0e5e285_k_&msclkid=05e873f261d7166b80b91613c0e5e285#all-free-services

Microsoft Azure (d.g.). Microsoft Azure. <https://www.microsoft.com/es-xl/Licensing/product-licensing/azure>

Microsoft Azure (d.g.). Zer dira hodei publikoak, pribatuak eta hibridoak? <https://azure.microsoft.com/es-es/resources/cloud-computing-dictionary/what-are-private-public-hybrid-clouds/#public-cloud>

Wankhede, P., Talati, M. eta Chinchamalature, R. (2020). Comparative study of cloud platforms-Microsoft Azure, Google Cloud Platform and Amazon EC2. *International Journal of Research in Engineering and Applied Sciences*, 5(2), 60-64. <https://pdfs.semanticscholar.org/10bf/f6d5dee2c2dd62f85eac3ea1900045cae820.pdf>




DigitAll

Arazoak
konpontzea

5.2

BEHAR ETA
ERANTZUN
TEKNOLOGIKOAK
IDENTIFIKATZEA





Arazoak
kopontzea

C2 maila 5.2 Premia eta erantzun
teknologikoak identifikatzea

Proiektu bat sortzen Kickstarterren





Proiektu bat sortzen Kickstarterren


Crowdfundinga

2000ko hamarkadaren erdialdetik, *crowdfunding*ak indarra hartu du **bide tradizionalen** –hala nola bankuen edo arrisku-kapitaleko inbertitzaileen– **finantzabide alternatibo gisa**. Finantzabide berri hori eskuzabaltasun kolektiboaren boterean oinarritzen da, eta **erabakigarria** izan da *crowdfunding*ari esker kapitala eskuratzea eta produktu berritzaileak ateratzea lortu duten **enpresa txiki eta berriei laguntzeko**.

Ildo horretan, **crowdfundingak finantzaketa eskuratzeko aukera demokratizatu du**; izan ere, aukera eman die ekintzaile askori euren ideiak gauzatzeko, finantzaketa tradizionala lortzen ez duten proiektu berritzaileak garatzeaz gainera. Gainera, **aukera ematen die pertsoneri finantza-baliabide handirik izan gabe sinesten duten kausetan laguntzeko**.

Horregatik guztiagatik, *crowdfunding*ak **ohiko finantzaketa-ereduak nahasi ditu** nolabait, **crowdfundingeko proiektuak gauzatzeko plataforma ugari sortzeraino**.

Horren adibide da **Kickstarter**. Dokumentu honetan horri buruz hitz egingo dugu, plataforma hori zertan datzan eta bertan proiektu bat sortzeko jarraitu beharreko urratsak zein diren azaltzeko.



CROWDFUNDINGEKO PLATAFORMAK

Labur-labur azalduko da zer den crowdfundinga, zer abantaila dituen eta zer mota dauden. Crowdfunding mota bakoitzeko plataformen adibide zehatz batzuk erakusten dira: sariak (*Kickstarter, Indiegogo, Patreon*), inbertsioa (*Crowdcube, Seedrs*), dohaintzak (*GoFundMe, Teaming*), maileguak (*Kiva, Lending Club*).

e.digitall.org.es/A5C52C2V03



Kickstarterren proiektu bat sortzea

Esan bezala, Kickstarter *crowdfunding*eko plataforma bat da. 2009ko apirilaren 28an sortu zen, eta proiektu sortzaile bat izanik proiektua gauzatzeko kapitala behar duten pertsonen finantzaketa eskuratzen laguntzera bideratuta dago.

Zehazkiago, Kickstarter plataforma diseinatzen eta garatzen eta sortzaileen proiektuen inguruan komunitate bat sortzen diharduten pertsonen **konpainia independente bat** da. Taldeak edozein sektoretako pertsonak ditu: diseinatzaileak, musikariak, idazleak, *gamerrak* eta abar. Horregatik, Kickstarter ez da sektore jakin batean espezializatutako plataforma bat, baizik eta **ondo berezitako sektoreetako proiektuak finantzatzen laguntzen du**.

Ikusten denez, Kickstarter plataforma oso egokia da finantzaketa behar duen proiektu bat sortzeko. Horregatik, plataforma honetan proiektu bat hasteko jarraitu beharreko prozesua analizatuko da jarraian.

Kickstarterren proiektu bat sortzeko jarraitu beharreko prozesua

Prozesuan sakondu aurretik, Kickstarterren proiektu bat sortzeko bete beharreko baldintzak aipatu behar dira:

- 1 | 18 urtetik gorakoa izatea;** alabaina, 18 urtetik beherakoek proiektuaren sorreran parte har dezakete sortzaileak ikuskatzen badituzte.
- 2 | Funtsak banaka bilduko badira, proiektua abiarazi den herrialdean bizitzea** ezinbestekoa da, herrialde horretako **gobernuak emandako identifikazioa** izateaz gainera.
- 3 | Aitzitik, entitate gisa funtsak bildu nahi badira, proiektua entitatea erregistratuta dagoen herrialde berean abiarazi** behar da, **gobernuaren identifikazioa** eta funtsak biltzen dituen entitate nagusiaren dokumentu fiskalak izateaz gainera. Gainera, ezinbestekoa da entitatearen izenean proiektua sortzen duen pertsonak haren jabea edo exekutatzailea izatea, baita hura ordezkatzeko baimena izatea ere.

OHARRA

KICKSTARTERREN ESTATISTIKAK

Sortu zenez geroztik hona, Kickstarterrek 7.870 milioi dolar baino gehiagoko ekarpena lortu du, guztira ia 23 milioi babesle eta 93 milioi ekarpen baino gehiagoren medioz. Egoera horren ondorioz, Kickstarterrek 254.989 proiektu –arrakastaz finantzatuak– lortu ditu azken urteotan.



4 | Proiektua ezartzen deneko herrialdean eskuragarri dagoen **banku-kontu bateragarri** bat izatea. Funtsbilletako monetan zuzeneko gordailuak onartzen dituen **kontu korrontea** izan behar du horrek, **funtsak biltzen dituen entitatearen edo pertsonaren jabetzakoa** izateaz eta haren izenean egoteaz gainera.

5 | Funtsak biltzen dituen pertsonaren edo entitatearen izenean **kreditu- edo zordunketa-txartel** bat erregistratuta edukitzea.

Hasierako urratsak

Lehenengo fase honetan, **sortuko den proiektua zehaztu behar da**. Horretarako, proiektua **zer ideiatan funtsatuta egongo den eta sektoreri zuzenduko zaion zehaztu** beharko da, bai eta zer helburu erdietsi nahi den ere.

Idea antolatu eta proiektua zehaztu ondoren, hurrengo fasera igarotzeko unea da, ezagutzera emateko.

Proiektuaren historia

Fase honetan **proiektuaren orria** sortzen da, non zehatz-mehatz erakutsi behar baitzaie jendeari **nor** den sortzailea, **zer** egingo den eta **zergatik** egingo den.

Orrialde honetan jaso beharreko oinarrizko alderdietako bat **funtssezko galdera jakin batzuetarako erantzunak** dira.



FUNTSSEZKO GALDERETARAKO ERANTZUNAK PROIEKTUAREN ORRIAN

Galderak	Babesleentzako informazioa
Nor da sortzailea?	Beharrezkoa da sortzailea proiektuaren parte den taldearekin eta egin dituzten antzeko beste lan batzuekin batera aurkeztea.
Zer sortu nahi da?	Komeni da proiektuari buruzko xehetasunak ematea eta baliabideak sartzea, hala nola zirriborroak, laginak edo prototipoak, babesleak erakartzeko.
Nola sortu zen proiektu honen ideia?	Kontatu behar da nola hasi zen eta noraino iritsi den gaur egunean, pertsonak jakin dezaten zer eskaintzen den eta nola maneiatzen den.
Zer da proiekturako plana, eta zer denbora-marjinatan?	Kronograma argi eta espezifiko bat ezarri behar da babesleek proiekturako ezarri diren denborak ikus ditzaten.
Zer aurrekontu dago?	Batzuetan, banakapen soil batek erakutsi egiten du hori jada hausnartu dela eta bildutako funtsak fidagarritasunez erabiliko direla.
Zergatik proiektu hau?	Beharrezkoa da proiektuaren aldeko gogo bizia kutsatzea eta babesleek proiektuarekin duten konpromisoa sentitzea.



Informazio hori guztia testua eta idazketa bakarrik erabiliz transmiti daiteke, baina bestelako baliabide bisual batzuk gehitzea lagungarria da, batzuetan, pertsonak proiektuaren orrialdera erakartzeko (1. irudia).



1. irudia. "Proiektuaren orrialde bikain baterako aholkuak". Geuk egina, Kickstarter oinarritu hartuta (d.g.).

Sari-sistema

Pertsonek proiektuak babestearen arrazoietakoa bat trukean zerbait lortzea da; bestela esanda, jarduera sortzaile eta berritzaile bat babestea ez ezik, jarduera hartatik sari bat lortzea ere badu xede eta, honenbestez, babesten ari diren proiektuaren parte-hartzaile izatea nolabait. Horregatik, funtsezkoa da honako alderdi hauei buruz hausnartzen denbora-tarte jakin bat ematea:

- **Zer eskaini:** pentsatu behar **zer-nolako motibazioak izango dituen pertsonak** proiektu bat babesteko, xede duen komunitatearen gustuetan oinarrituta betiere. Lana hainbat formatutan eskain, lan pertsonalizatuak barne har edota prozesuan parte hartzeko aukera eman dezake, besteak beste. Garrantzitsua da **sari- eta osagarri-maila** batzuk eskaintzea, babesleek horien artean aukeratu dezaten.

**⚠ ADI****ZER EZ ESKAINI SARI GISA**

Badira sari gisa eskaini ezin diren artikulua edo zerbitzu batzuk, hala nola kupoiak, zozketak, edari eta elikagai energetikoak, animaliak, alkohola, finantza-zerbitzuak, diskriminazioa edo erasoak sustatzen duten kanpaina politikoetarako edo proiektuetarako funtsak biltzea, besteak beste.

- **Nola ezarri prezio bat:** prozesuaren zati honetan **bidezkoa izan** behar da. Norbaitek proiektu baten alde egiteko aukeraz hausnartzen ari bada, galdetu egingo zaio ea sariek merezi duten jartzen duen diruagatik.
- **Hainbat sari eskaintzea:** aurreko puntuarekin lotuta, **pertsona bakoitzak zenbateko jakin bat bat emango du**. Horregatik, **garrantzitsua da maila bakoitzean sari esanguratsu bat eskaintzea eta eskaintza horiei aurre egiteko aurrekontua kalkulatzeko**.

Sarien beste funtsezko alderdi bat da sortzaileak **bere kronogramara eta aurrekontura egokitu** behar dituela.

Horretarako, komeni da **artikuluekin hastea**, sariak eta osagarriak osatuko dituen horrekin, alegia. Kickstarterretik gomendatzen da **lehendabizi artikulua sortzea eta, ondoren, sarietara igarotzea**.

Artikuluak hautatu ondoren, sariak **noiz entregatuko diren zehaztu behar da**. Ildo horretan, komeni da **denbora-marjina** bat uztea epeak lasai betetzeko.

Horren ondoren, **bidalketa-gastuak eta helmugak zehaztu behar dira**, eta, beraz, **gastu horiek kalkulatu behar dira**. Kopuru hori babeslearen ekarpenari gehituko zaio, eta **zenbatu egingo da finantzaketaren xederako**.

Azkenik, **proiektua behar bezala finantzatzen bada, galdetegi** bat bidal dakieke babesleei, haiei buruzko informazioa lortzeko eta, horrela, sariak prestatu eta entregatzeko.



Finantzaketa

Finantzaketarako, Kickstarterrek "**Dena edo ezer ez**" izeneko eredu bat erabiltzen du; eredu horretan, proiektua ez bada finantzaketa-helburura iristen, ez da inolako funts-transakziorik egiten. Eredu horri esker, **sortzaileentzako arriskuak minimizatzen dira** eta proiektuaren bideragarritasunean **babesleek duten konfiantza areagotzen da**.

Sortzaileak ezartzen duen **finantzaketa-xedeak proiektua egiteko eta sariak emateko behar den gutxieneko kopuruaren** balioakidea izan behar du. Horretarako, lehenengo urratsa **aurrekontua ondo kalkulatzeko da**.

1 | Gastu guztien zerrenda egitea

Egon daitezkeen gastu guztiak kontuan eduki behar dira, baita hain agerikoak ez direnak ere. Hori egin ondoren, guztizkoa kalkulatu behar da, hasieran espero zena baino handiagoa izan daitekeena, baina komeni da urrats eta material guztiak zenbatzea.

2 | Proiektuaren irismena kontuan hartzea

Laguntza handiena, batez ere, sortzailea eta haren lana ezagutzen duten pertsonengandik jasoko da, eta, beraz, garrantzitsua da jakitea zer publikori zuzentzen zaion proiektua eta zentzuzko zer laguntza espero daitekeen.

3 | Segurtasun-marjina bat aurreikustea

Proiektua, azkenean, osorik finantzatzen bada, Kickstarterrek aplikatzen duen % 5eko tarifari aurre egin behar zaio, bai eta plataformako afiliatuen prozesatze komisio bati ere. Horregatik, funtsezkoa da ustekabeko gastu horietarako eta beste batzuetarako marjina txiki bat gordetzea.

4 | Finantzaketa-epea zehaztea

Epe hori 1 eta 60 egun artekoa izan daiteke, baina epe laburragoak dituzten proiektuek konfiantza handiagoa ematen dute eta babesleak motibatzen laguntzen dute.

5 | Helburu zabalduak

Behin proiektua argitaratuta, ezin da aldatu finantzaketaren xedea. Hala ere, helburua lortzen denean, pizgarriak gehitu daitezke funtzio, kolore edo opari berrietarako, helburu are handiago batera iristeko helburuarekin.



**⚠ ADI****ZER GERTATZEN DA PROIEKTUAREN OSPEA HANDITZEN BADA?**

Proiekturako aurreikusitako muga gainditzen bada, gomendagarria da sarietarako muga bat ezartzea edo entrega-datak mailakatzea, baita babesleei ohartaraztea eskaerak entrega-epetxi eragin diezaikeela ere.

Prozesuaren zati honetan funtsezko tresnak dira **proiektu-panela, babesleen laburpena, Google Analytics eta Kickstarter iPhone, iPad eta Androiderako** (2. irudia).

Panel de proyecto

Visión general del proyecto: progreso de la financiación, procedencia de los visitantes, desglose de las recompensas elegidas...

Resumen de patrocinadores

Se recoge toda la información de los patrocinadores: recompensas elegidas, mensajes, respuestas al cuestionario...

**Google Analytics**

Registra cuántas visitas a la página del proyecto se convierten en contribuciones.

Aplicación para móvil

Disponible para iPhone, iPad y Android, permite seguir la comunicación con los patrocinadores desde cualquier lugar.



2. irudia. "Finantzaketarako funtsezko tresnak". Geuk egina, Kickstarter oinarritu hartuta (d.g.).



Sustapena

Proiektua sustatzeko ekimenek presente egon behar dute hasieratik, helburu nagusi honekin: pertsonak proiektuaren berri izatea eta hura finantzatzera animatzea. Hona hemen sustapenerako aholku batzuk:

1 | Argitaratu aurretik, sustapen-estrategia bat prestatu

Hau da, proiektua aktibo dagoenean nola sustatuko den pentsatu behar da. Komeni da kontaktatuko diren pertsonen zerrenda bat egitea, edo sustapen-ekintzetarako egutegi bat sortzea.

2 | Proiektuan interesa sortzea

Horretarako, proiektua abiarazi baino astebete edo bi aste lehenago partekatu daiteke komunitatearekin. Horretarako oso baliabide erabilgarriak dira aurrebista-orria, aurremerkaturatze-orria, babesle potentzialak erakartzeko emaitzen marketina edo eskaera aurreratuen orria.

3 | Proiektuaren zabalkunde handia egitea

Proiektua argitaratu ondoren, oso garrantzitsua da hainbat bitartekoren bidez partekatzea, hala nola sare sozialen edo mezu elektronikoen bidez. Helburua ahalik eta pertsona gehienengana iristea da.

The screenshot shows the Kickstarter homepage. At the top left is the 'KICKSTARTER' logo. A search bar contains the text 'Buscar proyectos, creadores y categorías'. On the right, there are buttons for 'Empieza un proyecto' and 'Iniciar sesión'. Below the navigation bar, a list of categories is shown: 'Arte', 'Cómics', 'Artesanías', 'Danza', 'Diseño', 'Moda', 'Cine', 'Comida', 'Juegos', 'Periodismo', 'Música', 'Fotografía', 'Publicaciones', 'Tecnología', 'Teatro', and 'Descubrir'. The main content area is divided into two sections: 'Proyecto destacado' and 'Recomendaciones'. The 'Proyecto destacado' section features a large card for 'Awkward Guests 2: The Berwick Cases' by Megacorpin Games, which is 762% funded. The 'Recomendaciones' section shows four smaller project cards: 'The Sixth Realm' (16 days left, 472% funded), 'CLAWLAB: Tufting...' (56 days left), 'Desk Nest Cat Bed' (10 days left), and 'FREE STARS...' (18 days left, 433% funded).



Babesleekiko komunikazioa

Alderdi hori oso garrantzitsua da proiektuak irauten duen bitartean, **babesleek baloratzen baitute jasotzea proiektuaren eguneratze** zintzoak, informatiboak eta erregularrak. Bestela, proiektuari buruzko **berririk jasotzen ez badute**, pentsa dezakete **sortzailea ez dela gai agindutakoa betetzeko**.

Komunikazio hori gauzatzeko, hainbat ekintza egin daitezke (3. irudia).



3. irudia. "Babesleekiko komunikazioa". Geuk egina, Kickstarter oinarritu hartuta (d.g.).

Sariak ematea

Fase hau **proiektua osatzean gertatzen da**, hau da, Kickstarterren kanpaina arrakastatsu baten amaieran hasten da. Hala ere, **hasieratik planifikatzen da**, "Sarien sistema" atalean adierazi den bezala, aurrekontu zehatza eta komunikazio eraginkorra eskatzen baititu.

Azkenean proiektua arrakastaz finantzatzen bada, funtsezkoa da **lankideekin, fabrikatzaileekin eta hornitzaileekin harremana mantentzea** sariak emateko unea hurbiltzen denean, edozein zalantza edo arazo konpontzeko.



Horren ondoren, sariak prest daudenean eta babesleei buruzko beharrezko informazioa dagoenean, **bidalketa egiteko unea da**, eta sariak emateko paneletik jarraitu ahalko da.

⚠ ADI

BABESLEEI EGUNERATZEAK EMATEA

Prozesuaren gainerako etapetan bezala, babesleek sarien entregari buruzko informazioa izan behar dute. Horregatik, oso garrantzitsua da entregean aurrerapenari buruzko eguneratzeak ematea, baita produkzioan edo bidalketan atzerapenik gertatzen den jakinaraztea ere.

i Informazio gehiago

Kickstarterren proiektu bat sortzeko behar diren etapa guztiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, esteka hauek bisita daitezke:

- **Nola hasi – Kickstarter** (e.digitall.org.es/start). Kickstarter (g.f.).
- **Zure istorioa – Kickstarter** (e.digitall.org.es/story). Kickstarter (g.f.).
- **Sariak – Kickstarter** (e.digitall.org.es/rewards). Kickstarter (g.f.).
- **Finantzaketa – Kickstarter** (e.digitall.org.es/funding). Kickstarter (g.f.).
- **Sustapena – Kickstarter** (e.digitall.org.es/promotion). Kickstarter (g.f.).
- **Babesleekiko komunikazioa – Kickstarter** (e.digitall.org.es/patrons). Kickstarter (g.f.).
- **Entrega – Kickstarter** (e.digitall.org.es/entrega). Kickstarter (g.f.).





i Informazio gehiago

Market Splash (2023). *Crowdfunding estatistikak. Plataformak, bildutako dirua, sektoreak eta arriskuak*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: <https://marketsplash.com/es/estadisticas-de-crowdfunding/#link1>

Kickstarter (g.f.). *Estatistikak*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/stats?ref=about_subnav

Kickstarter (g.f.). *Kickstarterren misioa proiektu sortzaileei bizitza ematen laguntzea da*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: <https://www.kickstarter.com/about?ref=global-footer>

Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Nola hasi*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/getting-started?ref=handbook_story

Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Babesleekiko komunikazioa*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/updates?ref=handbook_fulfillment

Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Entregak*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/fulfillment?ref=handbook_backers


Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Finantzaketa*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/funding?ref=handbook_promotion

Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Sustapena*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/promotion?ref=handbook_funding

Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Sariak*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/rewards?ref=handbook_funding

Kickstarter (g.f.). *Sortzailearen eskuliburua. Zure istorioa*. 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: https://www.kickstarter.com/help/handbook/your_story?ref=handbook_rewards

Kickstarter (g.f.). *Who can use Kickstarter?* 2024ko martxoaren 12an berreskuratua: <https://help.kickstarter.com/hc/en-us/articles/115005128594-Who-can-use-Kickstarter>





DigitAll

Arazoak
konpontzea

5.3

TEKNOLOGIA DIGITALAREN SORMENEZKO ERABILERA





Arazoak
kopontzea

C2 maila 5.3 Teknologia digitalaren
sormenezko erabilera

MoSCoW metodoa





MoSCoW metodoa

MoSCoW metodoa


Proiektuen kudeaketan, funtsezkoa da tresnak eta teknikak edukitzea, proiektuaren arrakastarako funtsezkoak diren zereginak identifikatzeko eta lehenesteko. Teknika horietako bat **MoSCoW metodoa** da.

Dai Cleggek 1994an sortutako lehenespren-metodo bat da. Horren erabilera nagusia **produktu eta zerbitzu digitalen garapenean** datza, aplikazioak azkarrago gara daitezten. Horrek esan nahi du nahiko eraginkorra dela **garapen azkarreko inguruneetan**.

Teknika horrek **esparru egituratua** eskaintzen du proiektuaren hasieratik, **produktu berri bat** abiarazteko eta modu eraginkorragoan aurrera egiteko. **Ekimenak definitzeko eta kudeatzeko** balio du, izan atazak edo funtzionaltasunak, erabakia eta **lehenetasuna duten garrantzian** oinarrituta.

Metodo honen izena **akronimoa** da, **lehenetasuneko lau kategorien** lehen letrarekin eraikia: **MUST have** (eduki behar du); **SHOULD have** (izan beharko luke); **COULD have** (izan dezake); **WON 'T have** (ez du izango).

Ondoren, proiektuen kudeaketan MoSCoW metodoaren **abantailak eta erabilerak** aurkezten dira. Ondoren, hura osatzen duten **zati** guztiak zehazten dira. Azkenik, metodo horrek **gutxieneko produktu bideragarria definitzen** nola lagun dezakeen azaltzen da.



LEAN STARTUP ETA KANBAN TAULAK

Lean Startup metodologia definitzen da, haren abantailez eta erabileraz hitz egiten da, eta nola funtzionatzen duen azaltzen da, prozesuaren faseak eta elementu batzuk aipatuz, adibidez gutxieneko produktu bideragarria. Puntu honetan, MoSCoW metodoa aurkeztu da labur-labur, gutxieneko produktu bideragarria definitzen laguntzeko teknika gisa, gero dokumentazioan xehetasun handiagoz ikusteko. Azkenik, KanBan taulak aipatzen dira, hainbat metodologia ezartzeko tresna gisa, hala nola Lean Startup eta Scrum.

e.digitall.org.es/A5C53C2V02



Abantailak eta erabilerak

MoSCoW lehenespen-metodo **eraginkorra eta fidagarria** da, eta produktu bat **eraikitzeko eta horretan aurrera egiteko** ezaugarririk garrantzitsuenak hautatzeko aukera ematen du. Proiektuaren oinarri den lehenetasuna ezin hobea da proiektu baten azken emaitzan **efizientzia eta produktibitatea areagotzen** duten zereginak **sailkatu eta antolatzeko**. Lehenespen-metodo horrek hainbat abantaila eskaintzen ditu, besteak beste:

- **Erraza da erabili eta inplementatzeko** proiektuan parte hartzen duten pertsona guztientzat.
- Proiektuaren **helburuak, baliabideak eta denbora kudeatzeko** aukera ematen du.
- Taldearen barruan **komunikazioa** eta adostasuna sustatzen ditu.
- **Produktu berriak antolatzeko eta diseinatzeko** balio du, proiektu handi zein txikietarako, denbora-epe finko edo doituekin.
- **Baliabideen esleipena** optimizatzen du (materialak, pertsonak edo denbora) eta bezeroari emandako azken produktu baten gaineko **balioa maximizatzen du**.
- **Proiektuaren jarraipena egitea eta aldaketetara egokitzea** errazten du, identifikatzen baitu lehendabizi zer eskakizun entregatu behar diren.
- Proiektu berri baten **gutxieneko produktu bideragarri** batean zer eginkizun sartu behar diren erabakitzen laguntzen du. Epe luzera desiragarriak diren ezinbesteko eta beharrezko eskakizunak bereiziz.

OHARRA

Erabilgarria da hainbat testuingurutan

Teknika horrek oso ondo funtzionatzen du **enpresa-ingurune arinetan eta startupetan**, software-garapena, proiektu teknologikoen kudeaketa eta produktu digitalen plangintza barne hartuta. **Malgutasuna eta aldaketara egokitzeko gaitasuna** bereziki egokiak dira **azkartasuna eta berrikuntza** negoziaren arrakastarako funtsezkoak diren testuinguruetarako.

MoSCoW metodoa: Errekerimenduak eraginkortasunez lehenestea.

(e.digitall.org.es/moscow) Jacar, 2023



MoSCoWren zatiak

MoSCoW metodoaren bidez, egin beharreko **zereginak eta produktuaren eskakizunak identifika daitezke**, espero den emaitzaren arabera. Hau da, pentsatzen da zer eskakizun diren **ezinbestekoak**, zein diren **garrantzitsuak**, baina ez kritikoak, zein diren **aukerakoak** eta zein **ez diren beharrezkoak**.

Zeregin horiek **MoSCoWko lehentasuna emateko lau kategoriaren arabera** sailkatzen dira (1. irudia). Jarraian, horietako bakoitzean sakonduko dugu.



1. irudia. MoSCoWren zatiak. Geuk egina.

Must-have (Izan behar du)

Lehenengo elementuak produktu batek edo proiektuaren azken emaitzak izan behar dituen ezinbesteko funtzionaltasunei edo ezaugarriei egiten die erreferentzia. Horiek gabe **produktuak ez du zentzurik**, lege-, segurtasun- edo negozio-arrazoiengatik.

Adibidez, kokapenak bilatzeko aplikazio bat bada, ezinbestekoa da puntu jakin bat geolokalizatzeko eta kokapena hautatu eta partekatzeko aukera emango duen pantaila bat garatzea. Beraz, lehentasuna eman beharko zaie hala izatera bideratutako zereginiei.



Should-have (Eduki beharko luke)

Bigarren elementuak **eduki beharko liratekeen** alderdiei egiten die erreferentzia, pertsonalizazioa eta optimizazioa eskatzen duten zereginari, adibidez. Baldintza horiek **oso desiragarriak eta beharrezkoak dira, baina ez funtsezkoak**. Hau da, **etorkizunerako balioa gehitzen duten** hobekuntza gisa planteatu daitezke, nahiz eta horiek gabe produktuak behar bezala funtzionatzen duen, **egungo prozesua aldatu gabe**.

Adibidez, erabiltzailearen esperientzia hobetu daiteke proiektuak kudeatzeko sistema batean posta elektronikoko bidezko jakinarazpenen funtzio bat ezarriz gero ataza berriak esleitzen direnean. Hala ere, ez da funtsezkoa oinarriko funtzionamendurako.

Could-have (Izan dezake)

Hirugarren elementua, *nice-to-have* ere esaten zaiona, **ezinbestekoak eta beharrezkoak ez diren** alderdiei dagokie. Batez ere funtzionaltasun horrek produktua garestitzen badu eta gehiegizko denbora-ahalegina eskatzen badu. Kasuaren arabera, **interesgarria izan liteke eduki ahal izatea**, baina ez gauzatzeak **ez du proiektuaren bideragarritasuna murrizten**.

Aurreko adibidearekin jarraituz, proiektuak kudeatzeko sistema batean, kategoria horren barruan sar daitezkeen beste funtzio bat litzateke sare sozialekin integratzea, erabiltzaileek beren lorpenak edo zereginak LinkedIn bezalako plataformetan parteka ditzaten.

Won 't-have (Ez du izango oraingo honetan)

Azken elementua **egokiak ez diren eta landuko ez diren funtzionaltasunei** buruzkoa da. Denboraren, baliabide ekonomikoen, helburuetan izandako eraginaren eta abarren arabera. Kasu honetan, baztertu egiten dira proiektuaren bizitzaren une berri batera arte, non balio handiagoa emango duten.

i Informazio gehiago

The MoSCoW method. How to prioritize tize product backlog and get most valued functionality faster. (e.digitall.org.es/priorización) Medium, 2019.





Gutxieneko produktu bideragarriaren definizioan aplikatzea

Proiektu batean, kudeaketa oro garrantzitsua da, baina argi eduki behar dira bezeroari balio gehien ematen dioten zereginak edo eskakizunak. Horrela, MoSCoW metodoak **gutxieneko produktu bideragarriaren definizioan sartu behar diren** eskakizunei **lehenetasuna ematea eta horiei buruzko erabakiak hartzea** ahalbidetzen du, produktu horrek gutxieneko irizpideak betetzen dituela ziurtatuz **ahalik eta balio handienarekin merkaturatzeko**. Hau da, Must-have (Izan behar du) kategorian sartzen diren funtzionaltasunek gutxieneko produktu bideragarria biltzen dute.

Azkar inplementatzen da, **eta oso erabilgarria** da **enpresa-ingurune azkarretan eta startupetan** proiektuak kudeatzeko, batez ere entrega-epaek daudenean. Horrela, MoSCoW lehenesteko teknikarekin, zenbait funtzionalitate entregatzean eragozpenen bat badago, bezeroarentzat balio gutxien dutenak direla ziurtatzen da.

Hona hemen gutxieneko produktu bideragarri bat definitzeko **lehenetasunak erabakitzeko zenbait aholku**:

- 1 | Proiektuaren helburuak ulertzea:** xede-publikoaren beharrak eta itxaropenak ulertzea, produktuaren hasierako arrakastarako ekimen edo ezaugarri garrantzitsuenak erabakitzeko.
- 2 | Arbitrajea ezartzea:** proiektuan zehar sor daitezkeen desadostasunak nola konponduko diren erabakitzeko komeni da. Adibidez, aukera bat da zereginak bozketa bidez lehenestea da.
- 3 | Inpaktua ebaluatzea:** proiektuan eragina izango duen elementu bakoitza aztertzea, epeei, baliabideei edo kostuei dagokienez. Horri esker, fokua non jarri eta Must-have edo beheragoko kategorian sartzea saikatu behar diren alderdiak baloratu daitezke.
- 4 | Lehenespen-kategoria argiak definitzea:** MoSCoW metodoa erabiliz, gutxieneko produktu bideragarrian sartzeko funtsezkoak diren baldintzak identifikatzen dira. Komeni da taldeko kideek lehenespen-prozesua ulertzea eta prozesu horretan parte hartzea, erabakiak modu koherenteagoan hartzen direla bermatzeko.
- 5 | Erregularri berrikustea:** lehenetasunak alda daitezke prozesuan zehar; horregatik, kategorizazioak berrikusi eta doitu behar dira, beharrezkoa den heinean.

Informazio gehiago

MVP: zer da gutxieneko produktu bideragarria, nola egin eta adibideak. (e.digitall.org.es/mvp) HubSpot, 2023.

MoSCoW. Zer da eta nola lehenetsi zure aplikazioaren garapenean? (e.digitall.org.es/moscow-2) ITDO, 2020.




i Informazio gehiago

Busquets, C. (g.f.) MoSCoW: Qué es y cómo utilizarlo para priorizar. uiFromMars <https://www.uifrommars.com/priorizacion-metodo-moscow/>

Landajuela, I. (2022) MOSCOW lehenesteko teknika. <https://soka.gitlab.io/blog/post/2019-06-05-tecnicas-metodologias-priorizacion/#:~:text=Este%20m%C3%A9todo%20se%20suele%20aplicar%20cuando%20existen%20plazos,bien%20para%20definir%20MVP%20de%20un%20nuevo%20proyecto.>

López, O. (g.f.) Zer da MoSCoW metodoa? FormiUx. <https://formiux.com/metodo-moscow/>

Simlos, C. (2020, uztailak 14) MoSCoW. Zer da eta nola lehenetsi zure aplikazioaren garapenean? ITDO. <https://www.itdo.com/blog/moscow-que-es-y-como-priorizar-en-el-desarrollo-de-tu-aplicacion/>



Arazoak
kopontzea

C2 maila 5.3 teknologia digitalaren
formenezko erabilera

Inbound marketina eta edukien marketina





Inbound marketina eta edukien marketina

Sarrera


Marketin digitalaren mundu liluragarrian, **inbound marketina eta edukien marketina** funtsezko elementuak dira bezeroak **modu organiko** eta esanguratsuan erakartzeko, inplikarazteko eta gozarazteko. Atal honetan, bi terminoak definituko dira, eta marketin digitaleko kanpainen irismena eta eraginkortasuna sustatzeko nola lotzen diren aztertuko da.



SSM POSIZIONAMENDUA

Zer den azaltzen da, zein diren erabileraren onurak eta zein diren erabil daitezkeen sare sozial nagusiak. Posizionamendu egokia burutzeko gakoak eta urratsak ere irakasten dira. Azkenik, erabilgarriak izango diren tresna digital batzuk aipatzen dira.

e.digitall.org.es/A5C53C2V05



Definizioak

Jarraian, marketin digitalaren esparruan erabakigarriak diren bi kontzepturen funtsezko definizioak jorratuko dira: **inbound marketinga eta edukien marketina**. Lotura estua badute ere, bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ditu, eta ezaugarri horiek definitzen dituzte eta marketin-estrategia eraginkor baten barruan duten zeregina ezartzen dute.

1 | Inbound marketinga

